



ERRAZTEN

“Berriro inoiz ez”

Egiari Zor Fundazioa



ERRAZTEN . “Berriro inoiz ez”

Bizi dugun gatazka politikoaren testuinguruan indarkeriaren ondorioak latzak eta tragikoak izan dira. Gure geografiaren luze-zabalean jatorri ezberdinetako indarkeriak erabili dira, eta ezin da ukatu sufrimendu handia eragin dutela.

Agerikoa da euskal gizartea une erabakigarri batean aurkitzen dela bakearen, bizikidetzaren eta herri honen normalizazio politikoaren erronken aurrean. Erronka horiek bidea urratzen ari dira urte askotako gatazka politikoaren, giza eskubideen urraketan, indarkeriaren eta enfrentamendu sozialaren ondoren.

Gaur egun, gatazka gainditzeko agertoki egoki batean gaude eta, horregatik, gatazkaren arrazoiak eta ondorioak konponbidean jartzea ezinbesteko ariketa da, egiari, gertatutakoaren errelatoari eta memoria indibidual nahiz kolektiboari egin beharreko ekarpena.

Egiari Zor Fundazioan parte hartzen dugun Estatuaren biktimon ustez, lehenik eta behin oinarri politikoak jarri behar dira azken berrogeita hamar urteotan gure herrian gertatu dena sekula berriz errepika ez dadin. Guretzat hori da lehentasuna.

Printzipio horretan oinarrituta, giza eskubideen urraketan inguruko errelato eta gertaera guztiak maila berean ikusarazi behar dira gizartearen aurrean eta guztiak argitzeko ahalegina egin behar da. Gaur egun, errelato eta gertaera horietako batzuk nabarmentzeko joera dago, eta beste batzuk ukatu, ezkutatu edo minimizatu egiten dira. Joera hori gainditu beharra dago.

Euskal Herrian biktimen iritziak askotarikoak eta pluralak direla jakinik, gure iritzia, gure izaera eta gure existentzia ere islatuko dituzten espazioak eta ekimenak sortzeko eskaera egiten dugu.

Egiari Zor Fundazioa osatzen dugun biktimok gure ekarpen xumea egin nahi dugu ildo horretan, bi helburu nagusirekin: irekitzen ari diren aukerak baliatzea eta gizartearen gehiengo zabal batek babesten dituen xede horiek zapuzteko arriskuei aurre egitea.



1.- Gure izaera

Espainiako eta Frantziako Estatuak erabilitako indarkeriaren ondorioz eraildako edo hildako pertsonen senideak eta gatazkaren testuinguruan zaurituak eta torturatuak izan garen pertsonak gara.

Euskal gizarteak bizi izan duen dramaren adierazlerik argiena gara, hil gaituztelako eta oraindik ere behin eta berriz hiltzen gaituztelako:

- Lehenik eta behin, gure senideak bortxaz hil zituztelako, bizitzeko eskubidea urratu dietelako. Gure kasuan, hori da biktimazioaren jatorria.
- Hurrena, benetako egia ukatzen zaigulako, egia ofiziala inposatuz, gertaerak ezkutatuz eta haien inguruabarrak ukatuz edo bihurrituz.
- Gure senideen erailketak eta guk pairatutako torturak justifikatzen direlako, gure jarrera politikoa edo ustezko militantzia aitzakia gisa erabiliz.
- Erailketei eta torturei eraginkortasun errepresiboa eman zaielako eta oraindik ere ematen zaielako. Izan ere, gertaeren ondoren ateratako informazioa polizia operazioak egiteko eta pertsona gehiago atxilotzeko, torturatzeko eta espetxeratzeko erabili izan da, are gehiago gure senideak edo gu geu atxilotuak edo bahituak izan ginen kasuetan.
- Justizia administrazioak inoiz ez dituelako gertaerak ikertu, sumarioak bideratu edo errudunak zigortu, ez lehen eta ez orain. Gainera, hala egin den kasu bakanetan, ustezko justizia horrek berehala eman die zigorgabetasuna errudunei, atzeko atetik laster irteteko aukera eskainiz. Kasu askotan –gehiegitan- gure senideen erailketen erantzule polizial eta militarrek maila igoerekin eta dominekin saritzen dituztelako eta egindako zerbitzuengatik omendu eta goresten dituztelako. Zigorgabetasunak egile zuzenen, haien nagusien edo gobernuan egonik gure eskubiderik oinarrizkoenak urratzeko erabakiak hartu zituzten arduradun politikoen identifikazio publikoa ezkutatu duelako.
- Errekonozimendu legeetatik kanpo uzten gaituztelako. Legeak eta dekretuak bihurritu eta betekizunak manipulatzeko direlako gure erreparazioa zailtzeko. Izan ere, guri erreparazio hori ez zaigu inoiz iristen, edo kasu gutxi batzuetan eta oso era murriztuan iristen zaigu, oztopo lasterketa gogor baten ondoren.



2.- Gure jarrera giza eskubideen urraketa ororen aurrean

Askotariko biktimazio horretatik, gure esperientziak autoritatea ematen digu ozen esateko heriotzak, exekuzio estrajudizialak, desagertze behartuak, zauriak, torturak, mehatxuak eta giza eskubideen urraketa guztiak drama indibidual eta kolektiboa direla.

Euskal Herriko gatazka politikoaren testuinguruan, giza eskubideen urraketa etengabeak tragedia handia izan dira milaka familiarentzat. Tragedia hori aitortu, onartu eta erreparatu beharra dago, bere osotasunean; tragedia guztiak, inolako salbuespenik gabe. Tragedia bat bera ere ezin da geratu ahanzturaren tiraderan zokoratuta.

Guztiok enpatia landu behar dugu euskal gizartearen baitan, eragile politiko, sozial eta instituzionalekin, giza eskubideen bermea berrezartzeko, eskubide horiek erabiltzeko eta etorkizunerantz proiektatzeko. Pertsona guztien eskubide guztiak babestea gizartea trinkotzeko elementua izan behar da.



3.- Gure oinarri etikoa: “berriro inoiz ez”

Porrot kolektibo batetik abiatzen gara: inork ez du jakin giza eskubideen urraketa etengabeak gelditzen. Inoiz gertatu beharko ez ziren baina denboran gehiegi luzatu diren gertaera horiei amaiera emateko elkarrizketa, akordio eta negoziazio bide guztiek huts egin dute. Horren ondorioa giza eskubideen urraketan koadro iraunkor eta nabarmen bat da.

Giza eskubideen urraketak iraganeko kontua izan behar dira. Gaur egun, hori lortzeko prozesu baten hasieran gaude, eta prozesu hori kostatzen ahala kostatzen behar da.

Ikuspegi horretatik, gure jarrera etikoa berresten gara: “berriro inoiz ez”. Giza eskubideen urraketa gehiagorik ez. Indarkeria edo jazarpen politiko gehiagorik ez. Idazpen gehiagorik ez funtsezko printzipio demokratikoen urraketan erregistroan. Sufrimendu gehiagorik ez herri honetako familientzat. Inoiz ez.

Ilido horretan, oraindik erabiltzen diren indarkeria mota guztien behin betiko amaiera exijitu behar da eremu sozial, politiko eta instituzional guztietatik, eta guk faltan sumatzen dugu hori.



4.- Egia nahi dugu: giza eskubideen urraketen mapa osoa eta globala

Oraindik bide luzea egin behar dugu egia osoa ezagutzeko. Borroka egin behar dugu oraindik itzalean dauden gertaera guztiak argira ekartzeko. Gertaera horiek ezagutarazteko eta jendaurrean erakusteko mekanismoak ezarri behar ditugu. Edozein jardueraren helburua sufrimenduaren argazki global bat egitea izan behar da, ahal den bereizmen guztiarekin eta argitasun nahikoarekin.

Kezka handiz ikusten dugu nola bizitzeko eskubidearen urraketa jakin batzuk ezkutatu nahi diren, ikertu ez direla aitzakia gisa erabiliz. Datuak falta direla, egiaztatuta ez daudela edo ikertu ez direla esaten da, eta hori egiteko eskatzen zaio Espainiako justiziari, beti beste alde batera begiratu duen justiziari hain zuzen ere. Horrela, bizitzeko eskubidea objektiboki urratu duten gertaerak legitimatzen dira; justifikatu egiten dira, defentsa legitimoak ekintza polizialak izan zirela edo beste kalte bat eragozteko asmoz egin zirela argudiatuz.

Espainiako justiziak erabili nahi izan ez dituen bideak baliatu behar direla esaten da, beste biderik eskaini gabe, ikerketa faltaren hutsunea bete dezaketen beste tresna batzuk proposatu gabe. Horrexegatik dira beharrezkoak egia ezartzeko mekanismoak edo batzordeak.

Bizitzeko eskubidearen urraketak alboratzeak, aintzat ez hartzeak edo justifikatzeak benetako elkargune bat sortzea eragozten du, giza eskubideen urraketan eta sufrimenduaren mapa osoa eta globala lortzetik urruntzen gaitu.

Horrez gain, orain arte albo batera utzi diren baina gobernuek nahiz parlamentuek hartutako eta babestutako legeen, neurrien eta erabakien ondorio zuzena diren biktimazio egoerak ere hartu behar ditugu kontuan. Larrialdi antiterroristaren izenean justifikatu ziren, horrek beti izan baitu lehentasuna eskubiderik oinarritzkoenen errespetuaren gainetik.



5.- Erreparazioaren alde egiten dugun apustua: berdintasunezko erreparaziorako marko legal bat

Biktinek jaso duten erreparazio mailaren kategorizazioa errealitate bat da: kategorizazioa justizia lortzeko; kategorizazioa egia judiziala ezartzeko; kategorizazioa errudunak identifika-tzeko, zigortzeko eta zigorrak betearazteko; kategorizazioa errekonozimendurako eta erreparaziorako legeetan babesa jasotzeko. Kategorizazio horrek biktimak mailakatzea dakar. Biktima batzuk aitortu eta beste batzuk baztertu egiten dira, eta hori zeharo onartezina da. Guk oso argi daukagu zaila izango dela Espainiako Justizia Administrazioaren aurrean tratu berdintasuna lortzea; ezer gutxi espero dezakegu haren aldetik. Horregatik, hauxe da gure eskaera: beste justizia mekanismo batzuk arakatzea, gaur egungo legediak baztertzen dituen biktimei errekonozimendurako eta erreparaziorako itxaropena emateko, hala dagokielako.

Dirudienez, aurrerantzean instituzio publikoek lan egingo dute legediak biktima horientzat jasotzen duen erreparazio maila beste batzuek lortu dutenaren parekoa izan dadin. Ongietorria egiten diogu prozesu horri, eta guztientzat era egokian bukatzea espero dugu, baita guretzat ere.

Erreparazioak beste gauza bat ere eskatzen du: giza eskubideak urratzeko erabaki politikoak hartu zituzten eragile guztiek beren erantzukizuna zintzoki onartzea, batez ere ardura instituzionaletatik eta boteretik aritu zirenek. Hala ere, hemen diskurtso pozoitu bat aurkitzen dugu. Gertaerak gaitzesten dira, baina orokorrean, zehaztu gabe. Urraketa generikoak gaitzesten dira, baina ez dira aitortzen. Hala, guztia gaitzestea ezer ez onartzeko, aitortzeko eta erreparatzeko ihesbidea da. Horregatik, hipokresia politiko hori baztertzeko eta giza eskubideen urraketak eragin zituzten erabaki politikoaren kontu emateko eskatzen diegu eragile politiko eta sozial guztiei. Urraketa horien aurrean ez ikusiarena egin zuten edo bigun jokatu zuten eragileei, berriz, iraganean ez instalatzeko eta gertatutakoa argitzeko eskatzen diegu.

Min handiz ikusten dugu nola era etengabe eta akritiko batean goresten diren sufrimenduaren unibertso horren parte garrantzitsu baten erantzule direnak: laudorioak, gorespak, dominak edo sariak militarrentzat edo Estatuko Segurtasun Indarretako kideentzat, euskal gatazkan egindako zerbitzuengatik. Horregare gure mina berritu, zauriak ireki, gure sentimenduak irauli eta erreparaziotik urruntzen gaitu.

Guri, ordea, inolako oinarri etikorik ez daukan legedi bat aplikatzen zaigu, erail dizkiguten senideak edo haien erailketen inguruabarrak oroitzea bera delitu bihurtuz.



6.- Memoriaren alde egiten dugun apustua: errelato inklusiboa, osoa, poliedrikoa

Memoria inklusiboak bi oinarri nagusi izan behar ditu: giza eskubideen urraketen eta sufrimenduaren mapa osoa eta globala, eta giza eskubideen urraketen biktima guztiei maila bereko erreparazioa emateko marko legala. Oinarri horien gainean eraiki ahalko dira ezer justifikatzeko asmorik gabe gertaerak azalduko dituzten errelatoak, ezer legitimatu gabe gertaeren arrazoiak, inguruabarrak eta ondorioak azalduko dituzten errelatoak.

Ez dugu sinesten adiera bakarreko errelato batean edo memoria bakar batean. Beharrezkotzat jotzen dugu errelato eta memoria ezberdinak uztartzea, denak batera, norberaren ikuspegitik, bakoitzaren posizio politiko eta sozialetik. Adituek “errelato poliedrikoa” esaten diote horri, eta bat gatoz kontzeptu horrekin.



7.- Gure ekarpena: elkarguneak bultzatzea

Biktima gisa, gure asmoa ez da errekonozimendurako, erreparaziorako eta giza eskubideen urraketak sekula berriz errepikatuko ez direla bermatuko duten gutxieneko demokratikoak ezartzeko prozesu hori gidatzea. Gure asmo bakarra prozesu hori erraztea eta bultzatzea da, guri dagokigun ekarpena egitea.

Onartzen dugu guk ez dugula parte hartu behar arlo horretan hartzen diren erabaki politikoetan, are gutxiago proiektu politiko zehatzak defendatuz. Gure ustez, proiektu horiek zilegiak dira, baina beste eragile politiko, sozial eta instituzional batzuek garatu behar dituzte, eta haien jarduera errespetatzen dugu.

Baina bai helarazi nahi diegu gure ahotsa garai honen kudeaketaren ardura nagusia dutenei.

- Ez erabili biktimak interes alderdikoi edo partikularretarako.
- Errespetatu giza eskubideen urraketan biktimen pluraltasuna eta zor zaien tratu berdintasuna, honako printzipio hau oinarritzat hartuz: urraketa berdinen aurrean, eskubide berdinak.
- Arlo horretan akordioetara iristeko organoak, foroak edo batzordeak sortu, jarrera maximalistak albo batera utziz. Eztabaida horretan ez erabili gu arma jaurtigarri gisa, eta desadostasun legitimoen gaintik elkarguneak bilatu, iraganari, orainari nahiz etorkizunari honako printzipio honen arabera begiratu ahal izateko: giza eskubideen urraketa gehiagorik ez.

Ez inork eta ez ezerk ez digu itzuliko galdu duguna, baina zerbait eraiki ahal dugu elkarrekin, gertatutakoa inoiz errepika ez dadin. Biktima izatea ez da aukeratzen, egokitzen zaizun zerbait da, eta geure esperientziagatik badakigu mina kudeatzea kontu zaila eta oso intimoa dela. Hala ere, ez dugu nahi inork pairatu behar izatea guk pairatu duguna. Hori da gure helburua.

Horretarako, ezinbestekoa da gure zaurietatik harago begiratzea eta ikustea.

Elkar gaitezen tragedia hau sekula berriz ez errepikatzeko apustuan eta erabakitasunean.